

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

303 positibo berri
2.046 hildako EAEn
13.566 positibo guztira* UCln EAEn

NAFARROAN

444 positibo berri
632 hildako
23.456 positibo guztira UCln Nafarroan

*HERNANIN 405 (+7), ASTIGARRAGAN 99 (+3)

Musikari errimak eta bertsoei melodiak jarriko dizkiete gaur, Agirre anaiek eta Imanol Kamiok

Ereñotzuko frontoian ariko da hirukote hernaniarra, gaur gaueko 22:00etan hasita, 'Auskalo zeinek jarriak' emanaldia eskaintzeko. Bertso jarri musikatuena saioa izango da, eta sarrerak salgai daude, Irrintzi tabernan.

EREÑOTZU BERTSOLARITZA

Garai zailak alaitzeko asmotan da Olak auzo elkarteak, eta horri begira, emanaldi berezia antolatuko du gaur gauerako: *Auskalo zeinek jarriak* saioa eskainiko dute Eñaut eta Unai Agirre bertsolariek eta Imanol Kamio musikariak, 22:00etan hasita.

Ereñotzuko frontoian izango da, eta emanaldirako sarrerak badaude oraindik, Irrintzi tabernan; atzo arratsaldean, 40 bat sarrera geratzen ziren. 5 euroan daude salgai.

Ez da ohiko bertso saioa, bertan eskainiko dutena. Izan ere, bertso jarri musikatuena emanaldia prestatu dute: musikari errimak jarriko dizkiete Agirre anaiek, eta bertsoei melodiak Imanol Kamiok. Emanaldirako, bertso zahar historikoak berreskuratu dituzte Eñaut eta Unai Agirrek, eta bertso berriekekin batera eskainiko dituzte, musikaren laguntzaz.

Horrek, «bertso jarriari bere lekua» eman nahi izan diote bi bertsolariek, gaur egun bat-batekoak duen protagonis-



Eñaut Agirre bertsoan irripartsu, eta Unai anaia atzean adi, Bertsolotako saioan.

moaren aurrean. Modu informalean hasi ziren emanaldia eskaintzen, duela urte pare bat, eta ia azko maiatzean egin zuten aurreneko saio formalak, Beasainen. Orduetik, gehiago ere eskai-

ni dituzte, baita Hernanin ere, joan den abenduan Biterin, Bertsolotaren barruan. Ereñotzura ekarriko dute gaur, baina ohi bezala, izango du berezitasunik, aurrekoen aldean... **K**

Argazkia gaur, CD Hernaniko futbol taldeek

HERNANI FUTBOLA

Gaur arratsaldean egingo du taldeko argazki ofiziala, CD Hernaniren futbol sailak. Baina oraingoan, futbol eskolakoak ez dira bertan izango, jende pilaketak saihesteko. Zubipen izango da, 18:30etan.

Elora irteera, printzipioz aurrera

HERNANI HERNANI ERROTZEN

Elora irteera antolatu du Hernani Errotzenek, iganderako, bertako gaztelua bisitatzeko. Eta jakinarazi dute, printzipioz aurrera dijoala plana: «Nafarroako barne muga ixten ez badute behintzat, bisita gidatua egin egingo dugu». Osasun egoeratik, hori bai, norberak eraman beharko du musukoa, hamaiketako eta edariak; eta bisita talde txikietan egingo dute. 09:10etan aterako dira autobusez, Biteri aurretik, eta izena eman behar da joateko: herriaerrotzen@gmail.com edo nabarralde.eus.

Datozen bi asteotan jarriko diete gripearen kontrako txertoa, arrisku taldeetako herritarrei

Martxan da gripearen kontrako txertaketa kanpaina. Gipuzkoan, Osakidetza deituko die arrisku taldeetakoiei, hitzordua emateko; Nafarroan, anbulatoriora deitu behar dute.

URUMEA GRIPEA

Martxan da gripearen kontrako txertaketa kanpaina, Gipuzkoan zein Nafarroan; eta bietan, arrisku taldeetako herritarrek izango dute lehentasuna. Horiei, hernaniar eta astigarrarren kasuan, telefonoz deituko die Osakidetza, hitzordua emateko; eta datozen bi asteotan jarriko diete txertoa.

Hernanin, kiroldegia prestatu dute txertaketa kanpaina honetarako; eta Astigarragan, anbulatorio zaharrean izango da.

Arrisku taldeetakoak ez di-

renek, berriz, urriaren 31tik aurrera izango dute aukera, txertoa jarri nahi badute. Horretarako, telefonoz deitu beharko dute, dagokien osasun zentrori (Hernanin 943 00 66 66, eta Astigarragan 943 33 56 44); eta baikoitzaren egoera baloratuko du Osakidetza.

Nafarroan ere, lehentasuna emango diete arrisku taldeetako herritarrei; baina beraiek deitu beharko dute hitzordua eskatzeko, dagokien osasun zentrori. Aranoarrek eta goizuetarrek, beraz, Leitzako osasun zentrori deitu behar dute: 948 51 08 33.



Anbulatorioan ez, kiroldegian jarriko dute gripearen kontrako txertoa, Hernanin.

Osakidetza zein Nafarroako Gobernuaren osasun sailak nabarmendu dute, aurten are eta garrantzitsuagoa dela gripearen kontrako txertoa jartzea, bereziki arrisku taldeetako herritarren artean: 60-65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoak

dituztenak, haurdun dauden emakumeak, eta osasungintzako langileak.

Nafarroan, azaroaren 27ra arte luzatuko da gripearen aurkako txertaketa; eta Gipuzkoan ere, aste horretan bukatuko da, baina baliteke luzatzea ere. **K**

Kurtso hasierako batzarrik ez, gaur

HERNANI GAZTE ASANBLADA

Ikasturteari hasiera emateko batzarra zeukan iragarrita Hernaniko Gazte Asanbladak, gaur arratsalderako; baina atzeratu egin dute azkenean, «egunotan eman diren COVID-19 kasu berriek sortutako egoera kontuan hartuta, eta kasuen zabalpenari aukera gehiago ez emateko».

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Asteroko dinamikari segida emanez, kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan Zinkoenean, Hernaniko preso eta iheslarien senideek deituta.

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A
GAUR
ERAMATEKO MENUA
Arrain zopa
Txipiroti krepeak bere tintarekin
Etxeko yogurra franbuesa
mermeladarekin
10,50 €
Asteartetik aurrera menua iragarki
merkeetan aurkituko duzu
Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

OGI BERRI
OKINDEGIA
Rosa Morla
Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn: 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlaluengo@yahoo.es

ezkati
ileapaindegia
Iturriaga, 4
Hernani
943 55 65 96
Hartu ordua

ESPECIALISTAS EN MARISCOS
MARISCOS HERNANI
Javier Justiz
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 2020 Hernani
943 555 156
mariscos.hernani

AITAN-ETXE
TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46

GAUR Egonkortzera egingo du eguraldiak gaur. Lainotuta egongo da goizean, baina pixkanaka argituko du, eta ostarteak zabalduko dira. Norabide aldatzeko haizea ibiliko da goizean, ahul, eta ekialdetik finkatuko da arratsaldean. **Min.8° / Max.15°**

BIHAR Giro lasaia izango dugu bihar, eta tenperaturak ere gora egingo du koxka bat. Erdi-mailako laino batzuk agertuko dira zeruan, baina ostarteak ere zabalak izango dira. Hegoaldeko haizea ibiliko da goizean, eta ipar-ekialdekoa arratsaldean. **Min.6° / Max.17°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Odola emateko hitzordua daukate gaur, astigartarrek

Herri Eskolan egingo dute, 18:30etatik 20:30etara; eta ordua hartu behar da gaur goizean: 943 00 78 85.

ASTIGARRAGA ODOL EMAILEAK

Gaur izango dute odola emateko aukera astigartarrek, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara; eta aurrekoetan bezala, Astigarragako Herri Eskolako aretoan egingo dute, pandemia dela eta.

Atzo bertan konfirmatu zuten gaurko hitzordua, eta odola ematera joan nahi dutenek, aldeztu aurretik deitu beharko dute, ordua hartzeko. Gaur goizean deitu behar dute, 943 00 78 85 telefonora, 08:30etatik 13:30etara.

Nabarmendu dute, «neurri bereziak hartzen» jarraitu behar dutela COVID-19ak eragindako egoeraren eraginez, «protokoloa betetzeko». Baina egoer



Anbulatorioan beharrean, Herri Eskolako aretoan egingo dute odol ematea.

ra honetan ere, «ezinbestekoa» dela odola, «bizitzak salbatzen jarraitzeko». Horregatik, astigartar guztiei luzatu diete deia, ordua hartu eta odola ematera gerturatzeko. Astigarragako Udalaren laguntzarekin egin dute gaurko deialdia, eta Gipuzkoako Odol Emaileen elkartea-

rekin koordinatuta.

Ekainaren 17an egin zuten aurreko odol emate saioa Astigarragan, Herri Eskolan bertan eta neurri guztiak hartuta hori ere; eta orduan, 35 lagunek eman zuten odola. Gaur egingo dute urteko hirugarrena; printzipioz, aurtengo azkenekoa. **K**

Mendialdeko Azoka egingen dute Goizuetan, azaroaren 8an

Herriko nekazari eta artisauei luzatu diete parte hartzeko deia; eta postua paratzeko, zabalik dago izenemate epea: udaletxean, edo 948 51 40 06.

GOIZUETA-ARANO AZOKA

Bertan behera geratu da Feri Eguna Goizuetan, baina azokarik ez da faltako, azaroan: Mendialdeko Azoka egingen dute hilaren 8an, eta eskualdeko nekazari eta artisauek paratuko dituzte postuak, bertan.

Hori horrela, azokan parte hartzeko deia luzatu die Goizuetako Udalak, herritarrei. Postua paratzeko, zabalik daukate izena emateko epea, herriko nekazari eta artisauek, urriaren 23ra arte: 948 51 40 06 telefonora deitu behar dute, edo Goizuetako udaletxera jo. Goizuetarrek bakarrik ez, Mendialdeko gainerrako nekazari eta artisauek ere badute aukera, postua paratze-



Artisau eta nekazarien postuak paratuko dituzte azokan. Argazkia: Felix Loiarte

ko: Arano, Areso, Leitza, Larraun eta Lekunberrikoek.

Nekazari eta artisaunen azoka izanen da, beraz; eta beraien ekoizpen eta produktuak saltzeko aukera izanen dute bertan. Salmenta postuak egonen dira soilik, eta azokariek ez da izanen Mendialdeko Azokan.

Udalak jakinarazi dute, bestalde, prebentzio eta babes neurriak hartuko direla azokan, COVID-19aren aurka: norabide bakarreko zirkuitua markatu-

ko dute, aforoa mugatua izanen da momentu bakoitzean, gel hidroalkoholikoa egonen da eta eskuak garbitu beharko dituzte bisitariak, eta musukoa jantzita eramatea derrigorrezkoa izanen da, besteak beste.

Joan den astean iragarri zuten Feri Batzordeak, aurten ez dela Feri Egunik izanen; baina bertako nekazari eta artisauei erakusleho bat eman nahi izan die Goizuetako Udalak, Cederna Garalurrekin batera. **K**

Hitzaldia bihar Biterin, espetxeetako errealitateaz

Goizeko 11:00etan izango da, Heraniko Ernaik antolatuta, eta beharrezko segurtasun neurriak beteta.

HERNANI ERNAI

Hitzaldia antolatu du Heraniko Ernaik, bihar goizeko: espetxeetako errealitatea ezagutzera emango dute, 11:00etan hasita,

Biterin kultur etxean.

Hitzaldia irekia izango da, eta segurtasun neurri guztiak beteko dira COVID-19aren aurrean, nabarmendu dutenez. Bertaratzeko gonbitea luzatu diete herritar guztiei, espetxeetako errealitatea zein den ezagutzeko. «Denak etxean izan arte, borrokan jarraituko dugu. Azkenak bidea urratu arte, gazteok zuekin!», aldarrikatu du Hernaniko Ernaik. **K**

'El oficial y el espia' gaurtik, Biterin

HERNANI ZINEA

Zine emanaldiekin jarraituko dute Biterin, asteburu honetan ere. Eta gaurtik, *El oficial y el espia* jarriko dute, helduentzat; gaueko 22:30etan izango da gaurko saioa, 19:30etan bihar eta etzikoak; eta 16:30etan astelehenekoa. Haurrentzat, berriz, *Koko dragoi txikia oihanean* jarriko dute, bihar eta etzi, arratsaldeko 16:30etan.

'Asto erregea' pelikula bihar, Erriberan

ASTIGARRAGA ZINEA

Zinearekin izango dute hitzordua bihar arratsaldean, astigarrarrek. *Asto erregea* pelikula jarriko dute Erribera kulturgunean, 17:00etan hasita; eta sarrerak salgai daude, 2 euroan, www.astigarraga.eus web orrian edo Erriberan bertan.

Bi partiduko jaialdia gaur, kiroldegian

HERNANI PALA

Palako jaialdia izango da gaur iluntzean, Heraniko kiroldegiko frontoian. 20:00etan hasita, bi partidu jokatuko dituzte bertan. Kerejeta eta Macicior ariko dira aurrena, Intxurreren kontra, neska jubenetan; eta Balerdik eta Otaegik jokatuko dute ondoren, Ataunen kontra, neska nagusien bigarren mailan. Aldiz, Idizabalen ariko da, 20:00etan hasita, Agirrek, Manterolak, Zurutzak eta Arandiak osatutako taldea, mutil nagusien bigarren mailan. Atxurbide taldea izango dute aurrean.

Etxetik urrun gaur, esku pelotariak

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

Partidu gutxi izango dituzte Urumea bailarako esku pelotariak, asteburu honetan; eta gaur jokatuko dituzte horietako bost, guztiak etxetik urrun. Añorgan ariko dira, 19:00etan hasita, Iturbe hernaniarra eta Urdangarin astigartarra, aurrena; eta Uitz eta Etxarri hernaniarrak, ondoren. Urdangarin eta Saralegi astigartarrek, berriz, Zestoan jokatuko dute, 19:00etan. Ordu berean ariko dira Manterola eta Martin hernaniarrak ere, Azpeitian. Eta 20:00etan daukate hitzordua Arluziaga eta Laboa hernaniarrek, Bergaran.

Emakume tailerraren saioa, bihar

GOIZUETA BERTINTASUNA

Emakume tailerra egingen dute, bihar eta urriaren 31n, 10:00etatik 14:00etara udaletxeko ganbaran. Izena eman behar da, parte hartzeko: goizutakoemakumeak@gmail.com edo 674 086 926.

IRAGARKI MERKEAK

Bikote senegaldarrak alokatzeko pisua bilatzen du Hernanin. Nominak dituen. 3 gela gubuzien, 700€ gehien. **Deitu: 631 78 67 04**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**